

**EZ DAGO MUSIK!**  
Maialen Akizu Bidegain  
*Urretxu*

–Mus –hasi da partida.

Ostegunero lez, herriko elkartean batu dira. Gaur, Balentini tokatzen zitzaion afari mokadua preparatzea, eta, horrenbestez, bera izan da lehena karta jokoan hitz egiten. Oturuntza itzela paratu die: entsalada epela mariskoz atondua, legatza sal-tsa berdean, eta bere emazte Anak eginiko gazta tarta. Sukaldari ona da Balentin, eta hori ere izan liteke bere tripa borobil, astun eta lodiaren erruduna. Postrea, ordea, ez du ia usaindu ere egin. Ez da gozozalea inoiz izan, eta, gainera, Ana gogorazten dio. Beraien artean gauzak ez doaz nahi bezala. Izugarritzko haserrealdiak izaten dituzte, eta badira bi egun elkarri begiratu ere ez diotena egin. Gaur, bere harridurarako gazta tarta topatu du mahai gainean ohar batekin batera: *Postrea beti izan behar baita ona. Ez etorri berandu etxera. Bihar gogoratu Jon dentistarengana eraman behar duzula 17:00etarako. Ana.*

–Han –Felixek eman dio segida, nondik joko duen askorik zehaztu gabe.

Felix berrogeita zortzi urteko gizona da. Bisaia zuri eta iharra du, ile urdindua, eta bibotea darama bere aho ñimiño eta kaxkarra disimulatzen. Alaba bat du hamazazpi urtekoa eta seme bat hamabikoa. Edurnerekin ezkondu zen eta ustez zoriontsu dira, hala dirudi behintzat. Afaltzera joaten dira askotan laurak batera, txangoak ere egiten dituzte asteburu batzuetan, edo besterik gabe bidegorrian alde batetik bestera ikus ditzakezu laurak noiz edo noiz. Familia perfektua osatzen dutela esan daiteke, baina etxean gauzak bestelakoak dira.

–Esku –Felixen alboan Iñaki esertzen da beti.

“*Iñaki: txiki baina basati*”. Horrela aurkezten zuen bere burua. Garaieraz 1,60 exkax, baina pipermina bezalakoa. Lazkao txiki ere deitzen diote batzuk, inprobisatzeko egundoko dohaina baitu, bertotan arituko balitz bezala hitz egiten du askotan, eta egun osoa kantuan pasatzen du. Domeka-pausu lasaiez ibiltzen den gizona da Iñaki, gibel-handi galanta. Lagun talde guztietan dago horrelakoren bat. Ondo ezagutzen dute eta badakite gertukoek ez duela afari bat antolatuko, ez eta proposamenik egingo, baina beti egoten dela prest umore pixka bat jarri eta koadrilan egoteko. Bi seme ditu. Zaharrena bera bezalakoa. Eneko du izena. Mutiko lasaia, baserritar petoa eta ikasketei garrantzirik eman ez diena. Bigarren bat ere badu Iñakik: Iban. Futboleko jokatzen pasatzen du egun osoa. Bizibizia, aitak beragan du konfiantza osoa. *Barça-k* laster hartuko duen ustea du, eta uste horren ondo-

rioz denetatik erosten dio: *Messiren* zapatila aerodinamikoak, Errealeko ekipamendu osoa, ligako baloi ofiziala... Futbol porteria bat ere jarria du baserriko baratzen ondoan entrena dezan. Iñaki Ane Mirenekin dago uztartua. Emakume fina, etxeko lan denak berak egiten ditu, baita semeak hezi eta eskolako lanetan lagundu ere, senarra tabernan txiste kontatzen aritzen den bitartean.

–Mus –laukotea osatzeko Erramun besterik ez zaigu falta.

Gizon serioa dugu Erramun besterik ez zaigu falta.

Gizon serioa dugu Erramun, jantzia, edukazio onekoa. Asko daki hainbat alorrez edo hori dirudi behintzat. Sudur luzea, bekozko iluna eta begirada trinkoa du. Gezurra badirudi ere Iñakiren anaia da. Bi urte zaharragoa izan arren ez daukate antzik hankako atzazaletan ere. Bi alaba polit ditu Erramunek. Zaharrena Maite, 22 urtekoa, eta gazteena etxeko sorgina, Uxue. Banandu berria da Bakarnerengandik. Ez zaio gustatzen hortaz hitz egitea baina Baliarrain bezalako herri batean biziz gero, asteberako amona zaharrek hainbat hipotesi dituzte, egunak txutxu-mutxuan igaro ostean; apaizarekin alde egin duela, enpresa gizon amerikar famoso eta aberats batekin joana dela Los Angeles-era bizitzera, diruagatik haserretu direla... Bere kartak ez ditu atsegin Erramunek, eta horregatik esan du *mus*. Balentinek harrituta begiratu dio.

Zortzi urte pasa ditu Sebastianek alkatetza karguan. Herritarrak gustura izan ditu, baita museko

laukotea ere. Izan ere, herriko festetan mus txapelketa bat antolatzeko proposamena egin zien, eta laurek hartu zuten antolatzeko ardura pozez txoratzen. Urteak aurrera doaz eta aurtengo hauteskundeetan parte ez hartzea erabaki du, ordea, alkate izandakoak. Erramunek hori jakitean bere aukera zela pentsatu zuen; beti gustatu izan zaizkio politika kontuak eta alkatetzarako aurkeztu du bere burua. Balentin ere lanik gabe dago, eta alkatetzarenak tentatzen duenez, berak ere azaldu du asmoa. Lagun minak izan dira betitik, baina orain bien artean tentsio puntu bat nabari da. Erramunek A esanez gero, Balentinek hobe dela B egitea zioen. Musean ere antzeko. Batek *mus* esanez gero, besteak moztu egiten zuen segituan, nahiz eta bi lauko bostekoa eta seikoa eduki. Gaur, ordea, biek erabaki dute mus egitea. Aspaldiko partez ados zeuden.

Norberak bere kartarik txarrenak bota eta berriz banatu ditu Erramunek. Bikoteak beti izaten ziren berberak; Balentin eta Iñaki, alde batetik, eta Erramun eta Felix, bestetik. Esertzerako garaian ere beti berdin; Balentin eta Erramun hurrenez hurren, Erramunen parean Iñaki eta honen ondoran Felix .

Erramunek berriz banatu ditu bakoitzak behar adina karta, eta lehena hitz egiten berriz ere Balentin.

–Ez dago musik. Enbido handira –Belentinek lehenengo eraso egin du. Felixek buruarekin ezezkoa egin du eta Erramuni begiratu dio.

–Eduki –Erramunek. Begirada zital bat egin dute beren artean. Bi errege, zaldia eta zazpikoa ditu Erramunek. Kanpaina ongi joango da, *jada badauka herriari zer itxura emango dion ideia bat*: etxe berriak egingo ditu gazte jendea etortzeko, udaletxea eta liburutegia berrituko ditu eta igerileku bat egin udarako. Kapital txiki bat bihurtuko da Baliarrain berarekin. Bi errege. Ez dira karta txarrak, baina bera errege bakarra izango da.

Handikeriak utzita txikira. Balentinek paso, baita Felixek ere. Iñaki, ordea, txiki zalea da:

–Hiru –begirada Erramunengan jarri dute denek, anaien arteko desafioak baitira denetan borrokatuenak. Erramunek kartei begiratu die ezer esan aurretik.

Iñakik eta Erramunek ez dute inoiz eztabaida seniorik izan. Anai artekoak bai, sarri, baina kontu seniorik ez. Gurasoek diru dezente eduki izan dute betidanik. Seme bakoitzari etxe bana egin zioten herrian bertan, eta dirua eskatutakoan, ez diete inoiz oztoporik jarri. Ama bost urte lehenago hil zitzairen. Aitari eman zioten beraietako batekin bizitzen jartzeko aukera, baina burugogor xamarra izan denez beti, ezezko garbia eman zien. harrezkero, aita bera bakarrik konpondu da baserrian, egunero joaten zaio emakume kolonbiar bat etxeko lanak egin eta zer edo zer prestatzera bazkalordurako, gustura bizi da gizona. Baratzeko lanak eta animaliak gobernatzen ibiltzen da goizeko lehen eguzki printzetik ilundu arte. Maiz, Iñakiren seme zaharrena, Eneko, joaten zaio aitonari laguntzera,

baita Iñaki ere, baina bestela berak egiten du dena. Asteburu batzuetan soilik joaten da Erramun aita eta baserria ikustera familiarekin batera.

Urteek, ordea, ez dute barkatzen, eta orain aitoren kezka handiena zein pilula tokatzen zaion ordu bakoitzean jakitea izaten da. Bi anaiek ondo dakite ez duela aurtengo kukurik entzungo, eta ondo dakite pentsatzen dutena baino diru gehiago dutela eskuartean.

–Bi gehiago –Erramunek trinko. “Ze uste duk, anaia txikiaren aurrean kikildu behar naizela?” –pentsatu du anaia zaharrenak.

Iñakik aitari testamentua egiteko eskatu dio behin eta berriz, eta hori badaki anaia zaharrenak ere. Eztabaida handiak izan dituzte, eta dirudienez, inor ez dago etsitzeko prest. Iñakiri lotsagarria iruditzen zaio Erramunen jokabidea. Ama hil zenetik ez da aitaz ezertaz artegatu. Noiz edo noiz, larunbatetan joan, porru, arrautza eta piper batzuk kendu eta besterik gabe alde egiten du. Orain hasi da zertxobait gehiago joaten. Baina gazteenak argi esan dio berak ondo dakiela ez dela aitaz kezkatzen, diruaz baizik. Erramunek barre egiten dio. Berak badaki maiorazkoa dela eta euren etxean beti errespetatu izan dela hori.

–Eduki –Iñakik ez du azken momentura arte adorerik galduko. Epaitegira joan behar bada ere hantxe izango da, kartak eta abizena zein diren garbi erakustera.

–Pareak bai –Balentinek berriz hartu du jokoa-ren lema.

–Bai –Felixek.

–Ez –Inakik.

–Bai –Erramunek.

–Enbido –Balentinek lehenengo erasoak egin du. Aurrean duen Felixi begiratu dio begietara, bere karten islapena ikusi nahian. Felixek ere begietara begiratu dio, baina Balentinen begirada izutzeko modukoa da.

Lehenengo batean Balentin, Ur Apalategiren *Fikzioaren Izterrak* liburuaren bila zebilen eroduan. Irakurria zuen eta lagun batek utzia zenez, itzuli egin nahi zion ahalik eta azkarren. Apal denean begiratu zuen, kaxoi denak arakatu, armairu atzea behatu... Baina ezer ere ez. Ohe azpian begiratzeko makurtu zenean, zer eta bereak ez ziren galtzontzilo batzuk topatu zituen. Zur eta lur geratu zen. Loredunak ziren, nahiko luzeak, frantsesei gustatzen zaizkien galtzontzilo kutre horietako batzuk. Ohe gainean eseri eta pentsatzen hasi zen. Ana eta bere artekoa, gaizki zihoan bai, baina berak asko maite zuen Ana. Bost urteko mutiko txiki bat zuten, Jon, eta minutu batez elkarrekin bizirikoa momentu on denak pasa zitzaizkion burutik. Minutu eder hura pasa ostean, beste irudi bat etorri zitzaion burura: Felixena. Oroitu zen, nola behin afaloste batean Felixek kontatu zien Donostiara erosketak egitera joan zirela aste horretan eta Edurnek ikaragarri gustatu zitzaizkion galtzontzilo loredunak itsusi batzuk erostarazi zizkiola. Jantzita zeramatzan egun hartan eta lagunei erakutsi zizkien. Gainontzeko hirurek, ardoaren eraginez eta lagunaren galtzon-

tziloen kontura, negar egin arte egin zuten barre. Orain, ez zitzaizkion galtzontzilo barregarriak iruditzen, nazkagarriak baizik. Orduetik ezin izan dio Anari begiratu ere egin, ez eta Felixi lehengo konfiantzan hitz egin. Ondo baitaki loredun galtzontziloek bere lorerik ederrena eraman diotela.

–Hiru gehiago. –Felix ez da damutzen egindakoaz. Berak ere Edurne asko maite du, baina batzuetan trukaketak egiten dituzte. Bai Edurnek eta bai berak. Anarekin beti moldatu izan da ondo. Institutuan batera ibili ziren, eduki zuten maitasun istorio labur bat ere. Egun batean kafea hartzeko geratu ziren garai zaharrak gogoratu, baita ondo gogoratu ere. Ez zen oroitzen zein ondo mugitzen zen Ana, eta egundoko postrea egin zion. Afariko gazta tarta baino hobe.

–Hordago! –Balentin bere aulkitik jaiki eta eskuaz mahaia joaz, mehatxuzko hordagoa jo dio. Bi anaiak begira gelditu dira, bi lagunen arteko tira-bira hura nondik zetorren ongi jakin gabe. Felixek irribarre pikaro bat egin dio eta kartak erakutsi. Bi txota eta bi seiko. Dupleak. Balentin harrituta zegoen “*kabroia, kartetan ere bi bikote dituk!*”. Balentinek hiru errege jarri ditu mahai gainean. Bera, Ana eta Jon. Lehenengo partida galdu egin dute, baina bizitza errealean ondo daki Balentinek bere etxekok osatzen duten *mediak* gehiago balio dutela noizean behingo *dupleak* baino. Balentin da oraingoan banatzen. Oraingo partida aurrekoa bezala Erramunek eta Felixek irabaziz gero, eurak izango dira txapeldunak.



Bigarren partida dela nabari da. Dagoeneko laugarren ardo botila hustu dute eta kopatxo baten desiran daude. Beraz, azkar bukatzea nahi dute denek. Handira enbidoa Felixek eraman du. Txikiko puntua Iñakirena. Pareetan Felixek hiru jo ditu, baina ez da inor erantzuten ausartu. Ez eta Balentin bera ere. Jokoa, Iñakik eta Felixek soilik dute. Felix gaur bero dago eta ez du ezer ere barutzen. Lehengo batean Prantxiskak, herriko berba-lapiko handienak, esandakoa buruan du oraindik:

*–Hi, Felix, zer moduz hire alaba Maite? Neska eder askoa zegok. Zer ari duk ikasten Salamankan, ezta? Azkarra gainera. Bikote ederra osatzen dik Errotaetxeko Iñakiren seme zaharrenarekin. Hori ere, ze gizon puska atera den. Ez dik aitaren antzik. Aitonarena agian, hura ere gizon galaia zuan garai batean. Orain bajatuta zebilek...*

Egundoko erretolika botatzeko gogoz zegoen atsoa. Geratu izan balitz, herriko bakoitzaren zapatila zenbakia ere esango zion Prantxiskak. Baina alabarena entzutearekin nahikoa izaten du Iñakik. Ustez familia giro ona dute, konfiantzazkoa eta atsegina. Horregatik ez du ulertzen nolatan ez zion Maitek Enekorekin zebilela esan. Enekorekin? Mesedez. Nola ibil daiteke mutiko harekin. Ahuntzez eta tomatez soilik hitz egiten du eta! Maitek gehiago merezi du; medikuren bat, abokatu, enpresa gizona... Hori da bere alabarentzat nahi duen etorkizuna eta ez baserritar batekin bizi, internet-a zer den ere ia ez dakiten baserri batean.

Garbi utzi nahi dio Iñakiri joko hobea daukala eta hobe duela bere lau kartekin ez jokatzea, ez berak ez eta bere ondorengoek ere.

–Hordago –Felix dena eramateko prest dago. Iñakik irribarrez hartu du, ardoaren gorriak muxua nabarmentzen diolarik.

–Hi Balentin, ze egingo diat? Bera zegok esku, baina agian gezurretan arituko duk. Gainera, kopatxo bat ere hartzeko astirik ez zaiguk geratuko bestela... –irri egin dute denek, eta Iñakik kartak erakutsi ditu mahaian luze. Hogeita hamaika. Ez dira txarrak. Felixek, ordea, barre isil bat egin du. Berak ere hogeita hamaika, eta esku. Oraingo honetan partida euren alde.

Patxaran kopa bana erraz hustu dute. Alkoholak badu indar berezia; musua eta bizitza lausotzen ditu, norberaren kartak poltsikoan gordeko balitu bezala hurrengo jokaldira arte. Bihar ostirala da eta bakoitzak bere etxerako bidea hartu du, euren kartekin ekin beharko diote biharkoari, handira enbidoa joz, txikian pasoa emanaz, ahalik eta pare-rik onenak eginez, eta ahal denetan jokoan gailenduz. Guztiek, kartak aldatzeko aukerarik gabe, ondo baitakite bizitzan ez dagoela ez musik, eta ezta lagunaz fidatzerik.